

## **Topaketa Bilboko Eleizbarrutian Sinodo-seneko Eleizari begira**

2022.eko urtarrilaren 6a

Agur bero bat, harri bizi lez, Eleizbarrutiko kide zarien guztiontzat! 2022.eko urtarrilaren 1ean, Begoñako amaxuren aurrean, urteari hasiera emoteko banatu genduan Jainkoaren bedeinkapena eskatzen deusat Jainkoari beste behin be guztiontzat.

Frantzisko Aita Santuak deialdia egin eutsan iaz Eleiza osoari, sinodo-seneko hausnarketa martxan jarri eian, hiru hitz nagusi kontuan hartuta: alkartasuna, partaidetza eta misinoa. Eskaria onartuz, prozesu horren "Eleizbarrutiko aldiari" ekin geuntsan. Askok parte hartu dozue azken hilabete bietan, alkarte eta taldeetan alkarrizketan jardunez, garatu dan azteraldian.

Ez da erraza deialdiari erantzutea, parte hartzeko denporea mugatua dalako, egutegi orokorrak baldintzatuta gagoz-eta. Dana dala, ehun erantzun inguru jaso dogu, 3.000 lagun ingururen partaidetzagaz burutu dan prozesuan. Kopurua, berez, esanguratsua da. Baina zuen gogoeta askoren kalidadea nabarmenduko neuke, eta alkarrizketak anai-arreben arteko benetako topaketa lez deskribatu dozuezanon esperientzia baliotsua. Gure esker ona Jainkoari guzti horregaitik.

Parte hartzea zabala izateak eta erantzunen jatorriaren aniztasunak Eleiza izateko era hobetu, eta honi lotuta, Bizkaiko gizartean Ebanjelioari lotutako misino-, lekukotasun- eta iragarpen-sena sendotu eta barritu egin gura doguzala islatzen dabe.

Erantzunen laburpena egin ondoren, urtarrilaren 22an, zapatuz, ospatuko dan topaketan aurkeztu gura dogu. Laburpen horreek balioestea eta, beharrezkoa izan ezker, aberastea da helburua, jasotako gogoeta eta proposamenen artean lehentasun batzuk jarriz.

Topaketa zabala egitea zan gure asmoa, baina etenbarik hedatzen diharduan pandemiak aforo, ordutegi eta baldintzei dagokienez ezartzen deuskuzan baldintzak kontuan hartuta, aldaketak egin doguz partaideen kopuruan eta batzarraren estiloan.

Dana dala, egun horretan, askotariko parrokia edo Pastoral Barrutietako, talde eta alkarteetako kideak eta eleizbarrutiko erakundeetako arduradunak leku berean batzea da asmoa, hori bai, jakina, gogoetak bialdu dozuezanoi lehentasuna emonez.

Jaunaren Agerkondeak poztuta eta Barri Ona eta Kristo bera oraindik ezagutzen ez dabezan lekuetara helarazotzeko irrikaz, jaso eizue anai besarkada eta aurrerantzean be eskaini eidazue laguntza eta otoitza Espirituaren arnasaz eta alkar hartuz lekuko Eleiza suspertu eta barritu daigun.

+ Joseba Segura  
Bilboko Gotzaina

## **Encuentro Sinodal en la Diócesis de Bilbao**

6 de enero de 2022

¡Un saludo cordial! a quienes, como piedras vivas, formáis nuestra Iglesia diocesana, pidiendo de nuevo a Dios para todos, esa bendición con la que, ante la amatxu de Begoña, arrancamos el 1 de enero este 2022.

El Papa Francisco invitaba el pasado año a toda la Iglesia a poner en marcha un proceso de reflexión sinodal articulado en torno a tres palabras clave: comunión, participación y misión. Acogiendo esta petición nuestra diócesis comenzó la "fase diocesana" del proceso. Muchos habéis participado en la consulta que, mediante diálogos en comunidades y grupos diversos, se ha desarrollado durante los dos últimos meses.

La convocatoria no era fácil, por la ventana limitada de tiempo para participar, condicionados como estábamos por el calendario global. A pesar de todo, se han recibido aproximadamente casi un centenar de respuestas en un proceso donde han participado cerca de 3.000 personas. El número, en sí mismo, es significativo. Pero, subrayaría la calidad de muchas de vuestras reflexiones, así como la experiencia valiosa de quienes habéis descrito los diálogos como auténticos encuentros fraternos. Damos gracias a Dios por todo ello.

Este nivel de participación y la diversidad en la procedencia de las respuestas reflejan un extendido y compartido deseo de mejorar nuestro modo de ser Iglesia, con la intención de fortalecer y renovar nuestra capacidad misionera, de testimonio y de anuncio del Evangelio, en la sociedad de Bizkaia.

Una vez realizada la síntesis de las respuestas, queremos presentarla en un encuentro sinodal que se celebrará el sábado 22 de enero. El objetivo es validar y, si fuera necesario, enriquecer los resúmenes elaborados, identificando algunas prioridades en el conjunto de reflexiones y propuestas recibidas.

Hubiéramos querido convocar a un encuentro amplio, pero las limitaciones que impone esta pandemia que no cesa, tanto en materia de aforos, como en horarios y condiciones, nos han obligado a replantear el número de participantes y el estilo de la reunión.

En todo caso, aspiramos a que ese día podamos reunirnos en un mismo lugar representantes de parroquias o Unidades Pastorales, miembros de grupos y comunidades diversas, así como responsables de instituciones diocesanas, priorizando lógicamente a aquellos que habéis enviado vuestras reflexiones.

Unidos en la alegría de la Epifanía, e inspirados en el deseo de que la Buena Noticia y Cristo mismo lleguen allí donde todavía no son bien conocidos, os mando un abrazo fraternal y me encomiendo a vuestro apoyo y oración para que el soplo del Espíritu inspire y renueve nuestra Iglesia local.

+ Joseba Segura  
Obispo de Bilbao